

GU izaten utzi

Ni nafarra naiz, Nafarroan bizi naiz, Nafarroan ikasi dut. Nire leembiziko solasak etxean, euskal solasak izan ziren. Eta gero ere, euskarazko hitza zen nire etxean aditzen eta erabiltzen zen bakarra. Lagunekin eta herritarrekin, gauza bera. GU euskaldunak ginen. Euskaldunak gara.

Lau urtetan, ordea, erdal eskolara eraman ninduten. Erdal Gobernuaren aginduz, Errepublikaren erdal aginduaz lehenik, eta militar eta Diktaduraren aginduaz gero. Espainola zen hizkuntza ofiziala eta ikastetxe espainolak ziren ofizialak. Euskarak ez zuen lekurik. Ez ziguten GU izaten uzten.

Iruñeko Seminarioan ere gaztelaniaz ikasten genuen, latinaez apartekoa. Ez herriko eskolan, ez Seminarioan, ez ziguten GU izaten uzten, aldatu egin behar genuen eta erdaldun egin ginen.

Osasun zaintzako beharretan sendagile erdaldunak, haien eta botiken azalpenak ere erdarazkoak. Ez ginen euskal eriak. Ez ziguten GU izaten uzten. Aspaldiko gauzak izan ziren? Gaur egun ulergaitzak jotzen ahal diren geertaerak?.

Bai zera! Hogei urte inguru direla, nafar gobernuak zera erabaki⁹ zuen: eskolako euskarazko lanpostua hartzen zuenak, ez zuela gero erdarazko lanposturik bereganatzen ahal. Orduan ere ez ziguten GU izaten uzten.

Oxemiel Barandiaran antropologoaren errana datorkit hainbat aldiz burura: "kolore ezberdineko milaka lore dira munduan, GU haietako bat gara. Eta guk ez dugu inor moztu edo baztertu nahi, baina GU ere izaten utzi gaitzatela eskatzen dugu".

Hogeita batgarren mendean bizi gara, ustez, edo teoriaz, jendearen kulturak aitzinera egin duelakoan. Begira, bada: duela egun guti, nafar talde bat euskararen aurka agertu da. Ez dakit nafarrak soilik ote ziren edo kanporrak elkartu ziren haiekin. Baina

XIIgarren mendean Nafarroako erregeak adierazi zuen euskara Nafarren hizkuntza zela. Zertan eta zergatik dabilta manifestaldi horretakoak?

Negargarriago edo lotsagarriago, beharbada, alderdi politiko handirako arduradun espainiarrak baieztatu duena: euskara ez omen da Nafarroako hizkuntza. Kulturarik eza da erran duena? Edo eta kulturaren etsaiak ditugu? Eta herrien etsaiak? Zeren eta kultura anitza da, herriak eta jendea anitza diren bezala. Argi ageri denez, ez lelen, eta ez gaur egun, ez digute GU izaten utzi nahi. Frankoren diktadura zelako hainbat urte jasan behar izan ditugu GU izaten uzten ez zigutela. Ez dugu erraten ahal 21garren mendean ere diktadura aski nagusi dela neurri handi samar batean?.

GU nafar euskaldunak gara.

Pello Apezetxea Zubiri